# KULTUR JARDUEREM AGENDA
## Arangurengo Ibarra

# OTSAILA, MARTXOA 2010



Ahari Kultur Taldearen Inauterien Erakusketa / martxoa.

**ANTOLATZAILEA**

Aranguren Ibarreko Udala — Kultura eta Jai Arloa

Casa de Cultura del Valle de Aranguren — Kultur Etxea Aranguren Ibarra

**BABESLEAK:**

ARANGUREN IBARREKO UDALA · AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARANGUREN

Nafarroako Gobernua

NAS Nafarroako antzoki sarea

**Programak "Artea eta Kultura 2010" - "Escena" - "Nafarroako Antzerki Sarea"**

**LAGUNTZAILEA:**

Diario de Noticias

A G E N D A

## OTSAILA

**Astelehena, otsailak 1**
Erakusketa. Pintura.
Kultur Etxea
JOSUNE IRIBARREN ESAIN

**Igandea, otsailak 14**
Haurrentzako antzerkia. 18:00etan
Kultur Etxea
"Salvar al señor Pérez"
LA RATONERA TEATRO

**Asteazkena, otsailak 17**
Ipuin-kontalaria (gazteleraz) 18:00etan
Kultur Etxea: Ludoteka aretoa
SERGIO DE ANDRÉS

**Igandea, otsailak 21**
Haurrentzako zinea. 16:30ean eta 18:30ean
Kultur Etxea
"Dos canguros muy maduros"

**Asteazkena, otsailak 24**
Ipuin-kontalaria (euskaraz) 18:00etan
Kultur Etxea: Ludoteka aretoa
INÉS BENGOA

**Ostirala, otsailak 26**
Antzerkia. 21:00etan
Kultur Etxea
"La zapatera prodigiosa"
ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI TAILERRA

**Larunbata, otsailak 27**
Antzerkia. 20:00etan
Kultur Etxea
"La zapatera prodigiosa"
ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI TAILERRA

**Igandea, otsailak 28**
Antzerkia. 20:00etan
Kultur Etxea
"La zapatera prodigiosa"
ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI TAILERRA

## MARTXOA

**Astelehena, martxoak 1**
Erakusketa
"Inauteriak"
Kultur Etxea
AHARI KULTUR TALDEA

A G E N D A

**Ostirala, martxoak 5**
Forum Zinea. 20:00etan
Kultur Etxea
"El secreto de sus ojos". JUAN JOSÉ CAMPANELLA

**Igandea, martxoak 7**
Antzerkia. 20:00etan
Kultur Etxea
"Las Gallegas". LOLITA CORINA

**Ostirala, martxoak 12**
Forum Zinea. 20:00etan
Kultur Etxea
"Enemigos públicos". MICHAEL MANN

**Igandea, martxoak 14**
Antzerkia. 20:00etan
Kultur Etxea
"Lisístrata, la paz por güebos"
COMPAÑÍA TEATRAL XXL

**Asteazkena, martxoak 17**
Ipuin-kontalaria (gazteleraz) 18:00etan
Kultur Etxea: Ludoteka aretoa
ION IRAIZOZ

**Igandea, martxoak 21**
Dantza ikuskizuna. 18:00etan
Kultur Etxea
"Berta en el desván". LARUMBE DANZA

**Asteazkena, martxoak 24**
Ipuin-kontalaria (euskaraz) 18:00etan
Kultur Etxea: Ludoteka aretoa
PATRICIA ENERIZ

**Ostirala, martxoak 26**
Forum Zinea. 20:00etan
Kultur Etxea
"Despedidas". YOJIRO TAKITA

**Igandea, martxoak 28**
Haurrentzako zinea. 16:30ean eta 18:30ean
Kultur Etxea
"Panet 51"

**Astelehena, martxoak 29**
Kontzertu korala. 20:00etan
San Pedro eliza (Mutiloabeiti)
ARANGUREN IBARREKO ABESBATZA

**Asteartea, martxoak 30**
Kontzertu korala. 20:00etan
San Pedro eliza (Mutiloabeiti).
AHOTS BAXUEN TALDEA "ORBELA OTXOTEA"

Otsailaren 1etik, astelehena, 25era, osteguna

BISITA ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera 16:00etatik 21:00etara

LEKUA: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

DOAKO SARRERA

## OLIO-PINTUREN ERAKUSKETA

### Josune Iribarren Esainena "Kirola eta paisajea Nafarroan"



Erakusketa honetako protagonistak Nafarroa eta herri kirolak dira. Bertan, olio-pintura eta akriliko ezberdinak ikusi ahalko dira, baita tratamendu mistoko kartoiak ere. Horietan adieraziko dira jolasten ari den pilotariaren mugimendua, eskuak, sokatirako tentsioa, etab.

Iruñea eta bere testuinguru Nafarrarekin harremana duten natura hil eta paisaiak biltzen dituzten zenbait margo ere jasoko ditu erakusketak.

Otsailak 14, igandea

18:00etan

LEKUA: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 3 €

## HAURRENTZAKO ANTZERKIA

### Taldea: La Ratonera Teatro Antzezlana: "Salvar al señor Pérez"



Zuzendaria: Roberto C. Berrío

Antzezleak: Selene Morante, Emilio Verdejo

Garabato eta Mariflor ipuinen zaintzaileak dira eta enkargu oso garrantzitsu bat jaso dute: haurrak gozoki asko jaten ari dira eta horrek Perez Xagua, hortzak jasotzeko arduradunak, lanez gainezka ibiltzea ekarri du. Perez jauna oso nekatuta dago eta bere bizia arriskuan dago. Garabato eta Mariflor, ipuinetako beste lagun batzuekin batera: Txanogorritxo, Loti Ederra eta Sagutxo Pinpirina, Perez Xagua betikoa izateko ahalegina egingo dute.

Haurrekin adiskidetasuna, talde lana eta tolerantzia lantzen dituen haurrentzako ikuskizuna. Helburua haur eta helduen bihotzetara iristea da, eta berengan amets egiteko eta sortzeko gaitasuna sustatzea.

Otsailak 17, asteazkena

18:00etan

LEKUA: Ludoteka aretoa (kanpoko aretoa)

Aranguren Ibarreko Kultur Etxea Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

DOAKO SARRERA

## IPUIN-KONTALARIA



Gazteleraz

### "Cuentos con sabor a limón"

Sergio de Andrésekin

Mundu guztiak esaten du ipuinak oso zaporetsuak direla, oso gozoak direla, ba... noski oso gozoak direla! Zapore ezberdinak dituzte: txokolatea, marrubia, erregaliza... beste batzuk odolki edo txilindron erara egindako bildots zaporea ere badute. Baina horiek beste istorio batzuk dira, gaur soilik limoi zaporeko istorioak kontatuko ditugu.

Garaiz iristea eskertuko da.

Otsailak 21, igandea

SAIOAK: 16:30ean eta 18:30ean

LEKUA: Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 2 €

## HAURRENTZAKO ZINEA




**Pelikula:**
**"Dos canguros muy maduros"**

**Zuzendaria: Walt Becker**

**John Travolta eta Robin Williams-ekin**

Bi lagun minek - maitasunean zorte txarra duen dibortziatu bat (Robin Williams) eta mutil zahar maitagarri bat (John Travolta)- beren bizia hankaz gora jartzen ikusiko dute 6 urteko bi bizki zaindu beharrean aurkitzen direnean, hain zuzen ere beren bizitzako negoziorik hoberena egitear daudenean. Dagoeneko hain gazteak ez diren bi mutil zaharrek, bikiak (Ella Bleu Travolta eta Conner Rayburn) zaintzeko gorriak ikusten dituzte. Deskalabruz deskalabru ibiltzen dira eta agian bizitzako lehentasunak hurrenkera berri batean kokatuko dituzte.

Otsailak 24, asteazkena

18:00etan

LEKUA: Ludoteka aretoa (kanpoko gela)

Aranguren Ibarreko Kultur Etxea Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

DOAKO SARRERA

## IPUIN-KONTALARIA



**Euskaraz**

**"Kamishipuinak"**

**Inés Bengoarekin**

Kamishibai japoniako usadiotik datorren ipuinak kontatzeko era bat da.

Arratsalde entretenigarri bat pasatu nahi baduzue, hurbildu zaitezte ipuin hauetara, entzun eta ikustekoak dira, irudiz lagunduak; tradiziozkoak eta modernoak dira, ipuin guztiak bezala, lehengoak eta oraingoak dira, eta irudimenari atea irekitzen diote, irribarreari, misterioari, ametsari, jolasari eta parte hartzeari.

Kontaketara garaiz iristea eskertuko da.

Otsailak 26, ostirala 21:00etan

Otsailak 27, larunbata 20:00etan

Otsailak 28, igandea 20:00etan

## TEATRO




**Aranguren Ibarreko Antzerki Tailerra**

**Antzezlana:**
**"La zapatera prodigiosa"**
**Federico García Lorcarena**

**Zuzendaria: Ángel Sagüés**

Ibarreko antzerki tailerrak bere estreinaldia inauteri garaira aldatu du. Horretarako ezin hobea da García Lorcaren obra hau: "LA ZAPATERA PRODIGIOSA".

OTSAILA 2010

**LEKUA:**
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 2,50 €

Beti hunkitzen duen antzezlan unibertsal eta kuttuna da. Beren maitasun eta errespetuzko harremana mantentzeagatik borrokan ari diren zapatari bikote baten inguruko pertsonaien desfilea da.

Tailerreko kideentzako erronka berria, beren esperientzia eta aldakortasuna frogatuko duena.

Tailerraren ibilbidean aurrera pausu bat izan nahi duen eszena-ratze honi ñabardura ezin hobe bat jarriko zaio Ibarreko Musika Bandaren laguntzarekin.

MARTXOA 2010

Martxoak 1etik, astelehena, 30era, asteartea

**BISITA ORDUTEGIA:**
astelehenetik ostiralera 16:00etatik 21:00etara

**LEKUA:**
Aranguren Ibarreko Kultur Etxea

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

DOAKO SARRERA

## INAUTERIEI BURUZKO ERAKUSKETA

### Ahari Kutur Taldea



Erakusketa honek euskal herrieta-ko inauterietatik ibilbide bat egi-ten du (Lanz, Altsasu, Ituren...).

Inauteri bakoitzeko pertsonaien kopia fidelaren bidez: lastoaren usaina, ezkilen doinua eta doinu egokien bidez, ikusleei aspaldiko erritu hau ulertzen laguntzen diegu.

Lan guztiak testu motz batzuk lagundurik daude. Testu horiek Barandiarán, Satrústegi, Jimeno Jurio eta beste batzuen ikerke-tetatik ateratakoak dira, eta ohitura hauen esanahi eta jatorria azaltzen dute.

Martxoak 5, ostirala

20:00etan

**LEKUA:**
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 2,50 €

## FORUM ZINEA




### Juan Zapaterren eskutik
### Pelikula "El secreto de sus ojos"

**Zuzendaria: Juan José Campanella**

**Nazionalitatea: Argentina, 2009**

**Aktoreak: Ricardo Darín, Soledad Villamil, Guillermo Francella, Pablo Rago**

Benjamín Espósito bizi guztian zehar zigor arloko epaitegi batean lan egin ondoren, jubilatu berri da. Bere denbora betetzeko, lekuko eta protagonista izan duen bere biziari buruzko nobela bat idazten hasiko da.

Elaberria, itxuraz, 1974an Buenos Airesen gertatutako hileta baten istorioa da, erruduna topatzeko ikerketaren istorioa. Baina, behin ate hori irekita, Espósito berari ezinezkoa egingo zaio berriz ere ixtea.

Martxoak 7, igandea

20:00etan

LEKUA:
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 6 €

## ANTZERKIA




**Taldea: Lolita Corina**

**Antzezlana: "Las gallegas"**

**Zuzendaria: Álex Navarro**

**Aktoreak: Lola González eta Coral Ros**

"Las gallegas" deituriko bikoteak heriotzan zehar egindako bidaiari buruzko beren ikuspegi berezia erakusten digute. Bi protagonistak, beren egoera berriaren jabe egin gabe, beren hileta-elizkizunean agertuko dira.

Lolita eta Corina konplexurik gabe edozein gertaeratara egokitzen dira. Ustekabeko gida batek "beste bizi"-ko sekretuak argitzen lagunduko die.

Komedia eta clownak lagunduko digute "las gallegas" direlakoen bidai bakan honetan. Beren hiletatik hasi eta fantasma profesionalak bilakatzen diren arte.

Martxoak 12, ostirala

20:00etan

LEKUA:
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 2,50 €

## FORUM ZINEA




**Juan Zapatearen eskutik**

**Pelikula "Enemigos públicos"**

**Zuzendaria: Michael Mann**

**Nazionalitatea: AEB, 2009**

**Aktoreak:**
**Johnny Depp, Christian Bale, Marion Cotillard, Billy Crudup, Stephen Dorff, Stephen Lang, Jason Clarke**

Inor ere ez zen Dillinger eta bere banda geldiarazteko gai. Ez zegoen beraiekin ahal zuen kartzelarik. Bere xarma pertsonalari eta bere ihesaldi ausartei eskerrak, ia mundu guztiak txalotzen zuen; bere neska laguna den Billi izeneko neskatik hasi eta herria krisian sartu zuten banketxeengatik inolako sinpatiarik sentitzen ez zuen kaleko edozein gizonera arte.

Aurrerako Baby Face Nelson psikopata eta Alvin Karpis ere Dillingerren taldekideak izango dira. Talde horren abenturek pertsona gehienak dibertitzen dituzte, baina J. Edgar Hooverrek gaizkilea harrapatzea pentsatu du, eta hori bere "Bureau of Investigation"-en aldaketaren hasiera sustatzeko erabiltzea.

Martxoak 14, igandea

20:00etan

LEKUA:
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 6 €

## ANTZERKIA

### XXL Antzerki Taldea

### Antzezlana: "Lisístrata, la paz por güebos"

Zuzendaria: Ramón Vidal

Musika zuzenean:

Juan Malgarejo eta Javier Aramendiaren eskutik

Aktoreak: Patxi Larrea, Sergio de Andrés, Maite Redín, Nerea Bonito, Adriana Olmedo




Bost antzezle hauek ia hogei pertsonaiei eta bi musikariri ematen diete bizia. Musikariek abesti guztiak zuzenean antzezten dituzte eskenatokiaren gainean. "Lisístrata, la paz por güebos"-ek bere komedia kutsu eta antzinatasunagatik gaurkotasun handia du, gudari buruzko hausnarketa egiten baitu. Lisístrata Atenaseko gudari baten emaztea da eta Atenas, Esparta eta beste hiri greko batzuen arteko etengabeko guduez nekatuta dago. Emakume horrek, azkenik bi alderdietako emakumeekin adostasuna lortuko du greba sexuala egin eta beren senarrekin harremanik ez mantentzeko horiek bakea sinatzen duten arte. Beren helburua lortuko dute. Aristofanesen antzezlanaren moldaketa "oso, oso, oso askea" eta "oso eroa" da.

Martxoak 17, asteazkena

18:00etan

LEKUA:
Ludoteka aretoa (kanpoko gela)

Aranguren Ibarreko Kultur Etxea Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

DOAKO SARRERA

## IPUIN-KONTALARIA

Gazteleraz

### "Cuentos sin ton ni son"

Ion Iraizozekin



"Cuentos sin ton ni son" irudimenetik sortutako ipuinak dira. Hegoaldeko, iparraldeko, ekialdeko eta mendebaldeko ipuinak. Guztienak eta guztientzako.

Gozatu dezagun erritmo eta emozioz beteriko ipuin hauetaz.

Kontaketara garaiz iristea ezkertuko da.

Martxoak 21, igandea

18:00etan

LEKUA:
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 3 €

## HAURRENTZAKO DANTZA IKUSKIZUNA

### ESZENA PROGRAMA 2010

### Taldea: Larumbre Danza

### Antzezlana: "Berta en el desván"

**Zuzendaritza eta koreografia: Joaquín Abella**
**Dantzariak: Eszenako pertsonaiak:**
**Sara Mogarra, Joaquín Abella, Clarissa Castro**
**Pertsonaia birtualak:**
**Daniela Merlo, Unai Torres eta Clarissa Castro**

"Berta en el desván" gaur egungo dantza ikuskizun bat da, lau eta hamar urte bitarteko haurrentzako ikuskizuna. Haurren barne munduari buruzko hausnarketa bat da, eta helduekiko komunikazio, elkarrizketa eta tolerantziarako ariketa bat egiteko helburua du. Protagonista, bere etxeko ganbaran jolaserako leku misteriotsu, erakargarri eta koloretsu bat topatzen duen hamar urteko neskato bat da. Baina ganbarako txokoetan Dukesa, bere semea eta etxezaina bizi dira eta koloreen jeloskor jarri dira. Denak lapurtzeko ados jarriko dira.



Martxoak 24, asteazkena

18:00etan

LEKUA:
Ludoteka aretoa (kanpoko gela)

Aranguren Ibarreko Kultur Etxea
Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

DOAKO SARRERA

## IPUIN-KONTALARIA

### Euskaraz

### "Hotz ala bero, ipuinak"

**Patricia Enerizekin**

Bat dago alfonbraren gainean, lau zopa platerean, eta bost berokiaren poltsikoan, baina... kontuz! ohearen azpian sei baitaude ezkutatuta.



Bat, lau, bost eta seik, 16 egiten dituzte! Atera, laster, etorri eta lagundu zenbatzen.

Kontaketara garaiz iristea eskertuko da.

Martxoak 26, ostirala

20:00etan

LEKUA:
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 2,50 €

## FORUM ZINEMA

**Juan Zapaterren eskutik**

**Pelikula: "Despedidas"**

**Zuzendaria: Yojiro Takita**

Nazionalitatea: Japón, 2008

Antzezleak: Masahiro Motoki, Ryoko Hirosue, Tsutomu Yamazaki, Tetta Sugimoto, Kimiko Yo, Takashi Sasano, Kazuko Yoshiyuki

Daigo Kobayashi, desegin berria den orkestra bateko biolontxelo-jole batek kaleetan zehar noraezean eta esperantzarik gabe bukatzen du. Hori dela eta, bere emaztearekin batera jaioterrira itzultzea erabakitzen du. Han lana topatzen du, ehorzle gisa: gorpuak garbitu, eta zerraldoan sartu eta beste mundura ahalik eta egoera hoberenean bidaltzen ditu. Bere emazte eta auzoei ez zaie lana gustatzen, baina Daigok heriotza erritual honetan bere bizian faltan zuen bizi poza topatuko du.




Martxoak 28, ostirala

SAIOAK: 16:30ean eta 18:30ean

LEKUA:
Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa

Eguzki plaza (Mutiloagoiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

SARRERA: 2 €

## HAURRENTZAKO ZINEA

**Pelikula: "Planet 51"**

**Zuzendaria: Jorge Blanco**




"Planet 51" estralurtar familia baten istorio bat da. Familia hori lasai-lasai bizi da bere planetan, beraientzako arrotza den izaki bat iristen den arte: gizaki bat. Charles "Chuck" Baker kapitainak, astronauta amerikarra, Planet 51n lur hartuko du, planeta hori oinperatzen lehenengoa dela pentsatuz. Bere harridurarako planeta horretan izaki berde txiki batzuk bizi direla jakingo du. Izaki horiek zoriontsu bizi dira hesi zuriz beteriko mundu batean. Beren beldur bakarra inbasioak dira, izaki arrotzen inbasioak... Chuck bezalakoen inbasioak! Bere kidea den "Rover" robotak eta Lemek, bere lagun berriak, lagunduta Chuckek Planet 51eko paisaia liluragarri eta harrigarrian bidea egingo du. Helburutzat: Planet 51ko Inbaditzaile Estralurtarren Museo Espazialeko behin betirako pieza ez bihurtzea.

Martxoak 29
astelehena

20:00etan

LEKUA:
"San Pedro" eliza

(Mutiloabeiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

DOAKO SARRERA

## KONTZERTUA: MUSIKA KORALA

### Aranguren Ibarreko Abesbatza

**Zuzendaria:
Gonzalo Esparza Imas**



2010eko Aste Santuan aurkeztuko dugun kontzertu koral honek, azken 15 urte hauetan elkarteak parte hartu duen sakro kontzertuetarako ikasi eta prestatu ditugun lanen errepaso bat izan nahi du.

Abesti gurutze-bide honetan testua zentzua izan da, musika sentimendua eta kantuan edo entzule gisa urte hauetan parte hartu duten guztiak: protagonistak.

Martxoak 30
asteartea

20:00etan

LEKUA:
"San Pedro" eliza

(Mutiloabeiti)

IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA

DOAKO SARRERA

## KONTZERTUA: MUSIKA KORALA

### Ahots baxuen taldea "Orbela Otxotea"

**Zuzendaria: Alfonso Ortiz Santesteban**



Orbela gizonezkoen hamasei ahotsez osatuta dago. Horiek guztiak beren musikarekiko pasioak eta gure herriko folklore aberatsa aztertu, landu eta ezagutarazteko grinak batzen ditu. Folklore errepertorioa zabaltzeko XVI, XVII eta XVIII. mendeko polifonia lanak eta gaur egungo mundu osoko konpositoreen lanak lantzen dituzte.

Federación de Coros de Navarra / *Nafarroako Abesbatzen Elkartea*-ren partaide da.

## OHAR GARRANTZITSUA:
## ZENBAIT IKUSKIZUNETAKO PREZIOA ALDAKETA

Nafarroako Antzerki Sarea eta Eszena programetara atxikitzeko, beharrezkoa da Nafarroako espazio eszeniko guztietako prezioak bateratzea. Ezinbesteko baldintza da ikuskizunei ondorengo prezioak ezartzea:

Helduak 6 €
Haurrak 3 €

Prezio horiek ezarriko zaizkie programa horien barruan dauden taldeen ikuskizunei, eta kasu bakoitzean zehaztuko da.

Gainontzeko jarduera eta programetan prezioa mantenduko da:

Helduen prezioa 2,50 €
Haurren prezioa 2 €

INTERESEKO OHARRAK

• Jarduera bakoitzean hasierako ordua eta nori zuzendua dagoen zehazten da. Jarduera bakoitzean jarritako ordua, data eta adina kontuan izan, arren.

## SARREREN ALDEZ AURREKO SALMENTA

• **Zenbakirik gabeko sarreren salmenta.** Auditorioan lekua mugatua da. Paseak, behar direnean, eta kasu bakoitzean zehaztutako prezioan:

• **Aldez aurretik eskura egongo dira:** jardueraren astean bertan, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, Kultur Etxeko harrera eta informazio-mahaian.

*(Leku aldetik dagoen muga dela eta ez da egingo telefonozko erreserbarik).*

• **Jarduera egingo den egunean bertan: Sarrerak gelditukobalira,** ekitaldia hasi baino ordu erdi bat lehenago. *(Antolamendu arrazoiengatik soilik egun horretarako ikuskizunerako sarrerak salduko dira).*

**Aldez aurretik erositako sarrerak ezin izango dira itzuli (pertsona bakoitzak, gehienez sei sarrera eskuratu ahal izango ditu)**
**Leihatilako telefonoa: 948 29 14 89**

• Kultur jarduerak izanik, eta ez komertzialak, **Auditorioaren barruan ezingo da ezer ere jan edo edan, ezta gozokiak ere.**

• Aktore eta gainontzeko ikusleenganako begirunez, **garaiz iristea eskertuko da. Itzali, mesedez, sakelako telefonoak** eta erlojuetako orduen seinale eta alarmak.

• Antolatzaileen berariazko baimenik gabe **debekaturik dago ekitaldiak filmatu, grabatu edota argazkiak egitea**. Inolaz ere ez da flashik erabiliko.

• **Behin ikuskizuna, emanaldia edo proiekzioa hasita, ezinezkoa izango da Auditorioan sartzea.**

• Aranguren Ibarreko Udalak aipatutako gomendioei muzin egiten dietenei sarrera debekatu ahalko die.

• Egitarauan aldaketarik egonez gero, Kultur Etxeko ikuskizunen taulan, Udal Informazio Gunean (herriko telebista kanalean) eta udalaren webgunean: **www.aranguren.es** iragarriko da.

• **Antolatutako ikuskizun eta jarduerei buruzko argibide gehiagorako, deitu 948 - 29 08 82 telefonora.**

Casa de Cultura del Valle de Aranguren — Kultur Etxea Aranguren Ibarra

Eguzki Plaza · 31192 Mutiloagoiti (Nafarroa)
Telefonoa: 948 29 08 82 • Faxa: 948 29 18 77
E-maila: cultura@aranguren.es